

## **LAN KONTRATUPEKO LANGILEEN HAUTAKETA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK, "GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETA, SAU" SOZIJETATE PUBLIKOKO PROIEKTU ZUZENDARI LANPOSTURAKO**

### **LEHEN OINARRIA.- DEIALDIAREN XEDEA**

Oinarri hauen xedea da Proiektu Zuzendari lanpostua beteko duen pertsona bat hautatzeko prozedura arautzea, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren berezko bitarteko den "Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, SAU" (GHK) Sozietate Publikoaren zerbitzura dagoen lan-kontratupeko langile gisa.

Lanpostu horretarako izendapena merezimendu eta gaitasun-printzipioei, eta egokitasun-irizpideei jarraituz egingo da, publizitate eta lehia bermatuz.

Lanpostuaren funtzioak honako hauek izango dira, besteak beste:

- Injeniaritza-proiektuak osatzea, bereziki hondakinen tratamendurako instalazioei buruzkoak.
- Obren zuzendaritza zein kontrola egitea, eta obrak abian jartzea.
- Eskaintzak aztertu, konparazioak egin eta esleipen-txostenak idaztea.
- Licitaziorako baldintza-orriak idaztea.
- Enpresari eta horren gobernu-organoei aholkularitza teknikoa ematea.
- Laguntza teknikoei laguntza eman eta horiek gainbegiratzea.
- Azpikontraten taldeko lana gainbegiratzea.
- Erakunde publiko eta pribatuekin hartu-emanak edukitzea lizentziak lortzeko.
- Ingurumen baimenak lortzea.

Horretarako eskatzen diren gaitasunak hauek dira:

- Kudeaketarako eta antolakuntzarako gaitasuna.
- Denbora eta baliabideak kudeatzeko gaitasuna.
- Zehaztasun eta gaitasun analitikoak.
- Lantaldean jarduteko gaitasuna.
- Lidergoa.
- Proiektuen kudeaketarako gaitasuna.

Lan-kontratu mugagabeko modalitatean egingo da kontratazioa, Langileen Estatutuko 15. artikulua xedatutakoaren arabera, gehienez 6 hilabeteko proba aldian.

Deialdi honetan aplikagarria da 2007ko apirilaren 12ko 7/2007 Legeak, Enplegatu Publikoen Oinarriko Estatutuarenak, 52, 53, 54 eta 55. artikuluetan xedatutakoa.

Deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, prentsan eta sozietatearen webgunean ([www.ghk.eus](http://www.ghk.eus)) argitaratuko da.

Langile-hautaketa lanetan espezializatutako kanpoko enpresa baten laguntzarekin garatuko da hautaketa-prozesua.

## **BIGARREN OINARRIA.- HAUTAGAIK BETE BEHARREKO BALDINTZAK**

Hautagaiak bete beharreko baldintzak hauek dira:

### **A) Baldintza orokorrak**

a) Nazionalitatea: Espainiako edo Europar Batasuneko estaturen bateko nazionalitatea izatea; edo, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiak berretsitako Nazioarteko Itunen bat aplikatzearen ondorioz langileen zirkulazio askea aplikagarri zaion estaturen batekoa izatea.

b) Adina: 16 urte beteta izatea eta derrigorrez erretiratzeko gehienezko adina ez gainditzea.

c) Titulazioa: Goi mailako industria ingeniartzan unibertsitate-titulua edukitzea.

d) Gaitasun funtzionala: Dagozkion eginkizunak normaltasunez betetzea eragozten ez dion gaixotasun edo ezintasun fisiko edo psikikorik ez edukitzea.

e) Gaikuntza: Herri administrazioen edozein zerbitzutatik, edo autonomia erkidegoetako eraketa zein estatutu organoetatik, diziplina espediente baten bidez baztertua ez izana, edota ebazpen judizial baten bidez enplegu edo kargu publikoak betetzeko ezgaitasun berezi edo absolutuaren mende ez egotea. Beste estatu bateko nazionala izanez gero, ezgaitua edo egoera baliokidean ez egotea, ezta diziplina-zehapenik edo baliokiderik ez izatea ere, dagokion estatuan baldintza berberetan enplegu publikora iristea eragotziko duenik, hain zuzen.

Baldintza orokor guztiak dira baztertzailak.

## **B) Berriazko baldintzak**

Baztertzailleak:

- f) Gutxienez 4 urteko esperientzia industria-instalazio handiei lotutako proiektuen zuzendaritzan. Besteak beste, proiektioan, obren zuzendaritzan eta obrak abian jartzen esperientzia egiaztatu beharko da.
- g) Esperientzia erakunde publikoekin hartu-emanak edukitzen lizentziak lortzeko.
- i) Energia-balorizazio planten inguruko ezagutza.
- j) B-1 gidabaimena.

Ez baztertzailleak:

- k) Esperientzia hondakinen instalazioen, ingurumenaren edota horri lotutako prozesuen bideragarritasun teknikoari eta ekonomikoari buruzko azterlanetan.
- l) Esperientzia tratamendu termikoen kudeaketan.
- m) Azpiegituren finantzaketari buruzko analisi-gaitasuna.
- n) Esperientzia proiektuen lidergoan, baldin eta proiektu horietan betetako funtzioen konplexutasun eta ardura-maila lanpostu honetarako eskatzen diren baldintzen antzekoak badira.
- o) Prestakuntza osagarria, lanposturako eskatzen diren esparruekin zerikusia duena.
- p) Ingelesa eta euskara jakitea.

## **HIRUGARREN OINARRIA.- ESKAERAK AURKEZTEA**

### A) Dokumentazioa:

Hautaketa-prozesuan parte hartzeko, interesatuek dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

1.- Eskaera inprimakia, dokumentu honi atxikitako ereduaren arabera (1. eranskina), behar bezala beteta.

2.- Nortasun agiriaren edo antzeko agiriaren, unibertsitate-titulazioaren eta gidabaimenaren fotokopia.

3.- Interesatuaren Curriculum Vitae (CV). CVak ongi bereizitako atal hauek izan behar ditu, gutxienez: merezimendu profesionalak (orain arte betetako lanpostuak) prestakuntza-merezimenduak (titulu akademikoak eta egindako ikasketak), eta egokitzen diren bestelako merezimenduak.

4.- CVan zehaztutako merezimenduak egiaztatzen dituzten frogagiriaren fotokopiak. CVan zehaztutako hurrenkeraren arabera zenbakituta joango dira frogagiri horiek.

Noiznahi, eskaeran zehaztutako baldintzak betetzen direla frogatzen duten jatorrizko agiriak aurkeztea eskatu diezaieke epaimahaiak hautagaiei; eta edonola ere, horrelakorik egiten bada, hautatutako hautagaia kontratatu baino lehen izango da.

### b) Eskaera aurkezteko lekua eta epea:

Eskaerak, gainerako dokumentazioarekin batera, GHK SAU Sozietateko presidenteari zuzendu beharko zaio, 1. eranskinean xedatutako ereduaren arabera, eta deialdiaren erreferentzia zehaztuta. Eskaerak bertaratuta edo posta

ziurtatu bidez aurkeztu ahal izango dira; bigarren kasuan, bidaltze-data zehatz-mehatz adierazi beharko da, GHK SAUko Erregistro Orokorrean, Ibaiondo Poligonoa 27 3., 20120 Hernani helbidean, astelehenetik ostiralera, 09:00-14:00 bitarte, bertan behar bezala erregistratzeko.

Eskaerak aurkezteko epea 10 egunekoa izango da, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean edo aurrez zehaztutako prentsa-komunikabideetan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita, betiere aipatutako bi argitalpenetatik, beranduago argitaratutakoa erreferentzia gisa hartuta.

## **LAUGARREN OINARRIA.- ESKAERAK EGIAZTATZEA**

Eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, akats zuzengarriak zuzentzeko izapide bat irekiko da, horretarako epe bat emanez.

Ez dira onartuko eskatutako baldintzak betetzen ez dituzten eskaerak, eta horiek zergatik baztertzaren diren azaldu beharko da.

Onartutako eta baztertutako hautagaien zerrenda (nortasun agiriaren azken lau zenbakiak eta letra) GHKko webgunean argitaratuko da.

## **BOSGARREN OINARRIA.- HAUTAKETA PROZEDURA**

Hautaketa-prozedurak fase hauek izango ditu:

### **1. FASEA.- OPOSIZIO FASEA: GAITASUN ETA ESKUMEN PERTSONAL ZEIN PROFESIONALEN AZTERKETA.**

Lanposturako eskatzen diren gaitasun eta eskumenen balorazioa egingo da.

Halaber, elkarrizketa pertsonala egingo da, hautagai bakoitzaren izaera orokorra eta gaitasun profesionalak ebaluatu, eta era horretan, lanpostuaren funtzioak betetzeko egokitasuna ebaluatzeko.

Fase horrek 0,00-60,00 puntu arteko balorazioa izango du, eta hautagaiek gutxienez 30,00 puntu lortu beharko dituzte gainditzeko.

Kanpoko aholkularitza-enpresa espezializatu batek egingo du fase hori.

Lehen fasean hautagai batek ere ez badu eskatutako gutxienerako puntuazioa gainditzen (30 puntu), GHK-k aukera izango du:

- Prozesuko kanpo aholkularitza-enpresari hurrengo 3 hautagai onenak proposatzeko eskatzeko, betiere gutxienez 20 puntu lortu badituzte.
- Prozesua itxi eta lanpostua hutsik uzteko.

Hautaketa-prozesu honen ardura duen kanpo-enpresak txosten bat emango du emaitzekin; prozesu honetarako izendatutako epaimahaiak emaitza horiek onartu ondoren, akta bat egingo da, eta hautagai finalisten zerrenda jasoko da bertan.

Zerrenda horretan hautagaien nortasun agiriko azken 4 zenbakiak eta letra agertuko dira, eta GHKko webgunean argitaratuko da.

Prozesuan zehar, lehen fasea onartu duten hautagaiei buruzko txosten osoa emango du kanpo-enpresa laguntzaileak.

## **2. FASEA: LEHIAKETA FASEA. PRESTAKUNTZA MEREZIMENDU ETA MEREZIMENDU PROFESIONAL KREDITATUEN BALORAZIOA.**

Oposizio-fasea gainditzen duten hautagaiak lehiaketa-fasera pasako dira, eta bertan, langileak hautatzeko lanetan espezializatutako kanpoko enpresak merezimendu hauek baloratuko ditu: prestakuntza osagarria eta lan-esperientzia.

1.- Prestakuntza osagarria: gehienez 20 puntu.

Deialdian zehatutako lanpostuarekin zerikusi zuzena duten ikasketak, ikastaroak, tituluak edo diplomak baloratuko dira, bakoitzaren iraupenaren eta edukiaren arabera. Balorazioa 20 puntu izango da gehienez.

2.- Lan-esperientzia: gehienez 20 puntu.

Lan-esperientzia: lehenengo oinarrian aipatutako funtzio berak baloratuko dira.

## **SEIGARREN OINARRIA.- EPAIMAHAIA OSATZEA**

Probak egiteko eta puntuazio onena lortu duen hautagaiaren izendapen-proposamena egiteko, epaimahai kalifikatzaile bat osatuko da, honako kide hauekin:

- .- Epaimahaikidea(k): Sozietateko kontseilari bat.
- .- Idazkaria: Sozietateko kontseilari bat.
- .- Presidentea: Sozietateko zuzendari nagusia.

Epaimahaiko kideren batek ezin badu joan, zuzendari nagusiak haren ordezkaria izendatuko du. Edonola ere, epaimahaiak gutxienez hiru kide eduki beharko ditu.

Zuzendari nagusiak ebaluatu beharko du proba aldia, txertatze-prozesuaren jarraipena ere egin beharko du, eta egokia bada, hori itxi beharko du. Hala ez bada, bere erabakia justifikatzen duen txosten bat eman beharko du.

## **ZAZPIGARREN OINARRIA.- HAUTAGAIA AUKERATZEA**



Hautaketa-probak amaitu ondoren, epaimahaiak kontratazio-proposamen bat egingo dio GHKri, puntuazio gehien lortu duen hautagaiaren alde, proba bakoitzean lortutako puntuazioak batu ondoren.

Hautagaiaren aukeratzea interesatuari jakinaraziko zaio; eta horrek hamar eguneko epea izango du hautaketa-prozesuan parte hartzeko baldintzetan eskatzen diren frogagiriak aurkezteko, zehazki:

- a) Dagozkion eginkizunak normaltasunez betetzea eragozten ez dion gaixotasun edo ezintasun fisiko edo psikikorik ez duela frogatzen duen agiria.
- b) Curriculum vitaean zehaztutako prestakuntza akademikoaren titulazio, ziurtagiri edo diplomen kopia egiaztatua.
- c) Lan-bizitzaren ziurtagiria, curriculum vitaean adierazitako esperientzia profesionala egiaztatzen duena.

Proposatutako hautagaiak ez badu eskatutako dokumentazioa aurkezten, prozeduraren azken puntuazioaren hurrenkeran gai den hurrengo hautagaia kontratatu ahal izango du GHK-k.

## **ZORTZIGARREN OINARRIA.- PROBA ALDIA.**

Lan-kontratuak sei hilabeteko proba aldia izango du zehaztuta. Proba aldian zehar, langilea aldi baterako ezintasun-egoera badu, edo amatasun, adopzio edo familia-harreragatiko lanetik kanpo badago, epe hori ez da proba aldi gisa kontuan hartuko.

Proba aldia ebaluatu eta kalifikatu egingo da, irizpide hauei jarraituz:

Betebeharrak eta lanak betetzea.

Lan-kalitatea.

Ikasteko borondatea.

Ekimena.

Ardura eta egokitzapena.

Lankidetzarako jarrera.

Harremanak bezeroekin eta laguntzaileekin.

Ebaluazio hori egingo du zerbitzuak ematen diren saileko zuzendari nagusiak edo berak ordez izendatutako pertsonak. Ebaluazioaren emaitza "Gai" edo "Ez gai" izango da, eta GHK SAUko presidenteari bidaliko zaio. Proba aldiaren emaitza "Ez gai" bada, aldi hori amaitu baino lehenago, nahikoa denborarekin bidali beharko da, Administrazio Kontseiluak beharrezko erabakia har dezan.

Proba aldi hori gainditzen ez bada, kontratuan atzera egingo da. Larrialdiko kasuetan, zuzendari nagusiak ebazpen arrazoitu baten bitartez egin ahal izango du atzera kontratuan, eta ebazpen horren berri emango dio Administrazio Kontseiluari, horrek egiten duen lehen bilkuran.

## **BEDERATZIGARREN OINARRIA.- LAN POLTSA.**

GHK-k eskubidea du 1. fasea gainditu ondoren, hautatuak izan ez diren hautagaiekin lan-poltsa bat osatzeko.

Lan-poltsa horren sorrera, baita horren kudeaketarako oinarriak ere, GHKren webgunean argitaratuko dira, hautaketa-prozesua amaitu ondoren.

## **HAMARGARREN OINARRIA.- DATUAK BABESTEIA**

GHK sozietate publikoak, 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, Izaera Pertsonaleko Datuen Babesari buruzkoak, xedatzen duena betez, hautagaiei jakinaraziko die, hautaketa-prozesuetan parte hartzeko, edozein arrazoi dela-eta, GHKra bidaltzen dituzten datu pertsonal guztiak GHKren titulartasuneko fitxategi informatizatu batean gordeko direla, Ibaiondo Poligonoa 27, 3, 20120 Hernani helbidean, deialdia egiten den lanpostua bete eta, beharrezkoa bada, etorkizuneko kontratazioetarako hautagai-poltsa bat osatzeko.

Datu-tratamendu hori boluntarioa da, eta, beraz, eskaera betetzean, GHK-k ulertuko du hautagaiek berriazko baimena ematen dutela beren datuak arestian zehaztutako xedeetarako erabiltzeko. Hala ere, horrek ez du eragozten edozein momentutan, hautagaiek horri aurka egin eta baimen hori ezeztatzea; ezta datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurkaratzeko eskubideak gauzatzea ere, arestian aipatutako helbidera idatzi bat bidaliz, betiere araudi aplikagarrian xedatutako baldintzetan.

## **HAMAIKAGARREN OINARRIA.- GORABEHERAK**

Epaimahaiak eskumena du sortzen den edozein zalantza argitu eta oinarri hauek xedatu gabeko egoeretan, hautaketa-prozesua behar bezala betetzeko erabakiak hartzeko.

Deialdia, bere oinarriak eta horien ondorioz zein epaimahaiaren jardueraren sortzen den administrazio-egintza oro inpugnatu ahal izango dira, indarrean dagoen legeak xedatutako eran eta epeetan.

#